

txintxarri

Datorren urtera arte!

TXINTXARRI

PISARRO

HORTZ KLINIKA DENTAL

IÑIGO DE LOIOLA, 9 BEHEA
LASARTE-ORIA TEL: 747 40 33 21

ODONTOLOGIA OROKORRA | ODONTOLOGIA ESTETIKOA | KIRURGIA | ENDODONTZIA | PADI |
ORTODONTZIA | PERIODONTZIA | ODONTOLOGIA PEDRIATIKOA | ZURIKETA | PROTESIA





Eskuratu

Lasarte-Oria 2024

1.000€eko saria
Eta zuri tokatzen bazaizu?
Kontsumitu ezazu Lasarte-Orian
uztailaren 1etik 14ra,
eta parte har ezazu
erosketa bonoen zozketan

1.000€

eta gastatu 3 ordutan

Kontsulta ezazu establezimendu parte-hartzaileen zerrenda

ZAPATERÍA ITURBE	FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA	LILURA LIBURUDENDA
VIÑA DEL MAR KAFETEGIA	FERRETERÍA SUKOA	INMOBILIARIA RK
VENTANAS ISU LEIHOAK	ELECTRICIDAD ARREGUI	IMAGINE JANTZI DENDA
VENTANAS ALCAR	CLÍNICA DENTAL ALDAZ	HIRU ALDETA TABERNA
URRUZOLA MERTZERIA	CAFÉ BUENETXEA	HAUNE INTERIORISMO
SANTANA INFORMÁTICA	BIDEO LAGUNAK	HALCÓN VIAJES
PERFUMERÍA MAIANE	BERASATEGI KAFEAK	GIMNASIO SAITO
PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA	AVENIDA TABERNA	FARMACIA ELI LASA
PELUQUERÍA MARBELL	ARKUPE TABERNA	EL PUNTO
PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA	ARAETA SAGARDOTEGIA	EGUZKI TABERNA
OSTEOPATIA NOELIA CALERO	ALBA MODA	DULCE TENTACIÓN
ORUE BOTIKA	ADMON. DE FINCAS MILLA	DECO 75 TEXTIL HOGAR
ORMAZABAL LORADENDA	ZUBIETA MOTOR	PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS
ORBELA EKODENDA	TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK	CENTRO DE MASAJE KIMA
ÓPTICA LIZARRI	SORAYA GALLEGRO MICROPIGMENTACIÓN	CALZADOS LEDER
OIHANA ESTETIKA	RESTAURANTE HERRIKO ETXEA	BOTE TATTOO
NOGUES MODA	PLAN B KAFETEGIA	BIZKER RÓTULOS
NATURHOUSE	PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR	BAR-CAFETERÍA BUS
MULTIOPTICAS LASARTE	PELUQUERÍA MANI'S	BAR ORIA-TXIKI
MERCERÍA OLMÍ	PELUQUERÍA BEA	ARIMA GASTROTABERNA
MERCERÍA ARITZA	ÓPTICA IRIGOYEN	AMA YOGA
LOTERÍA IZAGUERRRI+C	NORTH TEAM NUTRIZIOA	ADMINISTRACIONES BARDAJI
LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL	MUEBLES ELBUME	ADATS ORRAZTEGIA
GESTORÍA BETELU-BERME	MABEL MODA	



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO




LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



Igaro dira aurtengo San Pedro Jaiak eta Sorgin Jaiak ere. Egunotan bizitakoa gogoratu eta ez bizitakoa nolakoa izan zen jakiteko aukera paregabea duzue TXINTXARRI aldizkariak festetarako propio sortu duen kanal berezian. Goiko QR kodea sakelako telefonoarekin eskaneatuz gero ikusiko dituzue bideoak nahiz argazkiak eta irakurri kronikak. 30. urtez, plazera izan da udalerriko jaien berri ematea! Eskerrik asko eta datorren urtera arte!



DISEINU GRAFIKOA



INPRENTA
Offset eta Digitala



DISEINU EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

gora San Pedro jaiak

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 1-2 pabilioiak · LASARTE - ORIA

943 370 738

info@antza.eus

www.antza.eus



Ekainaren 27a

Sorgin Jaien hasiera

Ohi bezala, San Pedro Jaiak baino egun bat lehenago hasi zen Lasarte-Oriako sorginen akelarrea. Isla plazan elkartu ziren gazte kuadrillak arratsaldeko seietan, Elektropottotte elektrotxarangako lagunekin batera Okendo plazara arteko jaitsiera egiteko. Helmugara iritsi bitartean Txanpa, Arkupe eta llargi tabernetan geratu ziren, edari freskoak hartu eta lagun izan zituzten musikarien erritmora dantzatzeko.

Geltoki kalea zeharkatu eta gero sartu ziren Okendoko txosna gunera. Bertan zain zuten Xumela koruko kideek osatutako kuadrilla ederra, elkarrekin txupinazoa botatzeko. Horren aurretik, pregoia irakurri zuten Beñat Urruzolak eta Jone Arroyok, antolakuntzaren izenean, eta dantza emanalditxo eskaini zuten Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako zenbait kidek. Horren ostean bai, iritsi zen Sorgin Jaiei ekiteko unea, txupinarekin. Aurrena, herriko abesbatza horretako hogeit bat kidek esaldi bana partekatu zuen Okendo bete zuten herritarrekin, eta, ondoren, "suziriak" zerura nola jaurti entseatu zuten: ahoarekin sisipasa egin, izterrak eskuekin jo, txalo egin eta pum! Horrez gain, oroigarri bat jaso zuten korukoek eta zuzendariak altxa zuen zerura, Josu Txapartegi *Txapas* zarauztarrak.

Lehen parranda gaua sorginena izan zen. Akaleia eta Herenegun taldeek nahiz DJ Fantasiak girotu zuten Okendo plaza eta eguraldia txarra izanagatik ez ziren gutxi izan festara animatu zirenak. Edonola ere, dena ez zen algarra eta festa izan, hurrengo egunean DJ Fantasiak eraso bat salatu zuelako: oholtza gainera igo ziren bi pertsoneri izotzak bota eta zauriak eragin zizkieten. Hori salatze kontzentrazio bat egin zuten lasarteoriatarrek hilaren 1ean, Okendon bertan.



Sorgin kuadrillek Islatik Okendoranzko bidea egin zuten. TXINTXARRI



Elektropottottek dantzan jarri zituen jaitsieran parte hartu zuten sorginak. TXINTXARRI



Abestiren bat edo beste ia lurretik abestu zuten. TXINTXARRI



Aurreneko eguneko lehenengo uneetatik hasi ziren dantzan herritarrak. TXINTXARRI



Beñat Urruzola eta Jone Arroyo, jaietako pregoia irakurtzen. TXINTXARRI



Kukuka eskolako kideek dantza egin zuten txupinazoaren aurretik. TXINTXARRI



Josu Txapartegi 'Txapas' zuzendaria, koruari oparitutako oroigarria erakusten. TXINTXARRI



Talde argazkia atera zuten Sorgin Jaietako eta Xumelako kideek, txosna gunean. TXINTXARRI



Akaleia taldeak ireki zuen hilaren 27ko kontzertu gaua. TXINTXARRI



Ska doinu itsaskorrek ekarri zituen Herenegun taldeak Igeldotik. TXINTXARRI



DJ Fantasiak abesti garaikide eta zaharragoak nahastu zituen. TXINTXARRI




Gazteek gogotik egin zuten dantza eta parranda sorgin gunean. TXINTXARRI

ARGAZKI ESTUDIOA · EZKONTZAK
UME ETA FAMILIA SESIOAK · BOOK
JAUNARTZEAK · HAURDUNALDIAK
JAIO BERRIAK · PUBLIZITATEA · BIDEOA

eztiphoto

WWW.EZTIPTHO.COM / WWW.LILIBAT.EUS
Golf enparantza 4 (behea). Lasarte-Oria
943 900 565 - info@eztiphoto.com





Ekainaren 28a

Txupinazoen eztanda

Ur festa Maialen Chourraut kiroldegirako programatuta bazegoen ere, herri osora hedatu zen goiz horretan, euria gogotik egin baitzuen tarte askotan. Edonola ere, urak ez zituen herritarren festa gogoia eta haurren txupinazoko suziariak itzali. Udaletxe parean bildu zirenek giro ederrean ekin zien festei eta agurtu zituzten baita ere aurtengo Gure Patxintxiak, Maria Pilar Gonzalez eta Patxi Illarramendi. Ekitaldi nagusiaren ondoren txarangek kaleak girotu zituzten eta baita Lasarte-Oriako nahiz Hernaniko udal musika eskolek osatutako batukadak ere. Azkenik, haur dezente animatu ziren Atsobakarrera kalejiran joan eta makarroiak bazkaltzera.

Sorgin Dantzak abiarazi zuen arratsaldeko egitaraua. Ohi bezala, Oria auzotik erdigunea zeharkatu ostean heldu zen Okendo plazara. Ehunka lasarteoriarrek parte hartu zuten aurten ere ekimen horretan, eta, txistulariek ere ez zuten hutsik egin. Jarduera hori amaitu ondoren heldu zen San Pedro Jaietako une berezietako bat. Goizeko txupinazioaren ostean, festak bigarren aldiz eztanda egin zuen arratsaldean helduen ekitaldian. Makelur antzerki taldeak txupinazoa jaurti zuen, eta suziria lehertuta, eztanda egin zuen festak. Ondoren, Dinbi Banda batukada taldea arduratu zen festari jarraipena emateaz, eta Isla plazan, berriz, Ibai Berriak talde ezaguna aritu zen oholza gainean.

Kontzertuak eta ATLOren beterranoen danborrada izan ziren gaueko osagaiak. Chuleria, joder!, UDA, ETS, I Love 80's Band, DJ Txurru eta DJ Latxirongak izan ziren herria girotu zutenak. Bestalde, danbor jotzaileek ibilbide luzea burutu zuten, Ormazabal loradenda parean geldialdi berezia eginda. Komertzio horrek ehun urte bete dituela-eta, jabeen seme Julenek *Donostiako Marxa* gidatu zuen.



Haur txupinarekin batera, eztanda egin zuen jaiak. TXINTXARRI



Uretako festan ederki pasa zuten haur eta gaztetxoek. TXINTXARRI



Gregorik aurtengo patxintxien bizitzaren errepasoa egin zuen. TXINTXARRI



Patxi Illarramendi eta Maria Pilar Gonzalez izan dira aurtengo Gure Patxintxi sariak. TXINTXARRI



Gure Patxintxi sarituak Udaletxe zaharreko balkoian izan ziren haur txupinean. TXINTXARRI



Oaintxe in deu txarangak alaitu zituen txupinaren aurreko minutuak. TXINTXARRI



Gregorik umorez eman zion testigua alkate Agustin Valdiviari. Honek hitz batzuk esan eta txupina bota zuen. TXINTXARRI



Herritarrak aterkia eskuan eta blusa edo zira jantzita itxaron zuten txupina. TXINTXARRI



Lasarte-Oria eta Hernaniko musika eskolako ikasleen batukadak erritmoz bete zuten erdialdea. TXINTXARRI



Gaztetxoak kalejiran joan ziren Atsobakarrera. Bertan makarroi jan ederra egin zuten. TXINTXARRI



Sorgin Jaia-eko kideek bazkariarekin eman zion hasiera Sorgin egunari. TXINTXARRI



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

600 85 75 86 

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21





ARREGUI

Gora
San Pedro
Jaiak!



Urtero lez, Oriatik abiatu zen Sorgin Dantza. Handik, Kale Nagusia zeharkatuta iritsi zen Okendora. TXINTXARRI



Okendo plazan egin zituzten Sorgin Dantzako partaideek azken dantzak. TXINTXARRI



Txistulariak eta danbolin jotzailea arduratu ziren Sorgin Dantzakoak dantzari doinuak jartzeaz. TXINTXARRI



Makelur antzerki taldeko kideek eta zinegotziek balkotik jarraitu zuten txupinazoa. TXINTXARRI



Suziriak eztanda egin ostean koloretako pilotekin jolastu zuten herritarrek. TXINTXARRI



Helduen txupinazoan haurrek ere gozaten dute, nola ez! TXINTXARRI



Bazkalostean, sorgin konoan jokatu zuten sorginek. TXINTXARRI



Festei hasiera eman zien suziria lehertu ostean, koloretako puxikak jaurti zituzten udaletxetik. TXINTXARRI



Okendo plazan ekin zion emanaldiari Kita del Pare elektrotxaragak. TXINTXARRI



Dinbi Banda batukada taldekoek girotu zuten ekainaren 28ko arratsa. TXINTXARRI



'Hemen gaude' manifestazioak herria zeharkatu zuen aldarriekin. TXINTXARRI



Aurten ere ez du hutsik egin Ibai Berriak taldearen kontzertuak, Isla plazan. TXINTXARRI



Gure ikasleen ahotan

“LEINNeK pertsonak aldatzen ditu”

NAHIA AZKARATE, OLATZ AIZPURUA ETA NAROA MORENO

Herria: Orereta, Villabona eta Donostia. **Gradua:** Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntzako (LEINN) 3. maila



Nahia, Olatz eta Naroak EZTANDA proiektua landu dute, enpresetan leku atseginoak sortzea helburu duena. Gero eta gehiago baloratzen dira langileak ondo zaintzen dituzten enpresak eta, hori dela-eta, EZTANDAn langileen eta zuzendarien beharrak eta lan-espazioetako erronkak identifikatzen dituzte.

-Nola azalduko zenukete LEINN hitz batean?

Askatasuna. Graduan sartzen zaren momentutik duzun askatasunak zure burua ezagutaraztera eramaten du.

-Zer esan nahi du zuentzat proiektu berri bat sortzeak? Nondik sortu zen EZTANDA proiektua?

Proiektu bat garatzeak hasiera baten beldur pixka bat eman dezake, baina erronka polita da. Hala ere, prozesuan zehar lortzen diren ikasketak eta pertsonen garapena da baliotsuena.

LEINNeKo bigarren mailan

proiektuak sortzeko programa bat egiten da. Programa horretan hasi ginenean, bagenekien feminismoa eta intersektionalitatearekin lotutako zerbait egin nahi genuela. Ikertzen hasi ginen eta enpresen munduan arazo ugari zeudela ohartu ginen. Arazo hori ikusita, horrekin hasi ginen. Urtebete igaro da proiektua sortu zenetik, eta prozesuak berak proiektua aldatu, egokitu eta hobetzera eraman gaitu, merkaturatu identifikatutako beharrrak direla eta, hasieran sortu genuen ideiak egungoarekin ez baitu antza handirik.

-Kontatu proiektuaren inguruan egin duzuen akats bat eta bertatik ikasitakoa.

Perfeksionistak gara, dena perfektua egin nahi dugu, eta askotan ez da beharrezkoa. Proposamen zehatz eta perfektua eduki arte ez ginen bezero posibleengana joaten gure ideia kontrastatzera. Hori da proiektu bat sortzerakoan

egin behar ez den gauzetako bat. Kalera joateak, jendearekin eta bezero posibleekin hitz egiteak proiektuari asko laguntzen dio. Izan ere, horren baitan hobetzen da.

-LEINNen talde handietan ikasten duzue, “team company” delakoetan. Zer ikasi duzue zure taldekideengandik?

Dena. Gure kasuan, taldean hamahiru kide gara. Kide guztiengandik ikasten dugula esango genuke, pertsona bakoitzak ekarpen desberdina egiten duelako. Etengabe aritzen gara talde lanean, astean bi aldiz lau orduz talde osoa biltzen gara eta azkenean, elkarrekin espazioa partekatzeak, ikasketak partekatzea ere bermatzen du.

Bestalde, taldean gauzak nola kudeatu, eta elkar nola sustatu eta hobetu ere ikasi dugu, bakoitzaren indarguneak definitzen joanez, eta zeinek zertan lagun dezakeen definituz.



Txema Vallesek, oroigarria eskuetan, omenalditxoa jaso zuen danborrada hasi aurretik. ISAAC FARRE



Ormazabal loradendako jabe Ramon Ormazabal eta Coro Ortegaren seme Julenek (bizkarrez)



Danborradako sukaldariak beti bezain fin aritu ziren. TXINTXARRI



Nostalgiakoek gogotik gozatu zuten I Love 80's Band taldearekin, Jaizkibel plazan. TXINTXARRI



Sorgin Jaiak-en eskutik UDA taldea eta DJ Latxirongak aritu ziren, besteak beste. TXINTXARRI



'Donostiako Martxa' gidatu zuen saltokiaren atarian. TXINTXARRI



Ikus-entzuleek lepo bete zuten Okendo plaza, ETS ikusteko. TXINTXARRI



DJ Txurruk girotu zuen Oriarte Landaberriko festa gunea. TXINTXARRI



Iekoratik etorritako ETS talde arabarrak energiaz betetako kontzertua eman zuen. TXINTXARRI


 Aseguru artekaritza
 Aseguru mota guztiak.
 Eskatu aurrekontua!
Gora San Pedro Jaiak!
 Uzturre plaza, 8 behea
 LASARTE-ORIA
 Tel.: 943-37 11 18
 WhatsApp: 672 23 83 01
 pikabea@pikabeaaseguruak.com
 www.pikabeaaseguruak.com



Festak ondo pasa izana espero dugu!

Kale Nagusia 40
Tel: 943-36 39 64
LASARTE-ORIA



Ekainaren 29a

Omenduaren eguna

San Pedro eguna izanik, herri meza izan zen aurreneko jardura. Euriaren ondorioz tokiz mugitu behar izan zituzten Biyak Bat egoitzakoen lerroko dantza emanaldia eta herri kirolen erakustaldia, Loidibarren frontoira eta Elizatzeko arkupeetara hurrenez hurren. Bestalde, aurtengo omendua, Makelur antzerki taldea aintzatetsi zuten kultur etxean. Bezperako soinu arazoengatik irakurri ezin izan zuten pregoia partekatu zuten bertaraturakoeekin.

Arratsaldean, sagardo dastaketa eta sardina jana egin zituzten Ttakun KEk eta Aterpeak. Bitartean, *Poperra*, *afterra eta utopia* emanaldiaz gozatu zuten herritarrek Gaztelekuan eta dozenaka izan ziren geroagoko elkartasun manifestazioan parte hartu zutenak. Bestalde, Biyak Bat eta Hernaniko Eguzki koruak komentuan jardun ziren. Barraketara ere jende ugari joan zen.

Gauari hasiera eman aurretik, ohi bezala bertsolariak izan dira protagonista nagusiak; bertso saioa aurrera eraman zuten kultur etxean. Eta nagusiek bertso saioaz gozaten zuten bitartean, zezensuzkoarengandik ihesi ibili ziren herriko haur eta gaztetxoak. Horren ostean hasi zen gaueko lehen kontzertua. Bulego musika talde azkoitiarra igo zen Okendo plazako oholtzara. Isla plazan eta Jaizkibel plazetan Estrella Central eta Carlos Jean DJa aritu ziren, hurrenez hurren. Nemux disko festak hartu zuten Oriarte Landaberi eta Star Ways taldearekin jarraitu zuten parranda, Okendon.



Herri mezan parte hartu zuten Erketz EDTko dantzariak. TXINTXARRI



Harrijasotzaileetako bat, 63 kiloko harria altxatzen. TXINTXARRI



Biyak Bat egoitzako kideek lerroko dantzak erakutsi zituzten. TXINTXARRI



Aitortza jaso aurretik pregoia irakurri zuten Makelurreko kideak. TXINTXARRI



Ezker-eskuin, Makelurreko antzezle Ludi Cuesta eta zuzendari Maria Aguirre, orogarriarekin. TXINTXARRI



Herritar ugari ibili ziren sorgin azokako postuetan barrena. TXINTXARRI



Xumela koruko hiru kide, gogotsu abesten. TXINTXARRI



Pablo Mutiozabal kaleko arkupeetan aurrera eramán zuten Bizipozaren Akelarrea. TXINTXARRI



Paella bazkaldu zuten Sasoeta Sasoianek antolatutako otordu herrikoian. TXINTXARRI



Gora San Pedro Jaiak!
Aupa Lasarte-Oria!





Haur parkerik izan ezan, haur eta gazteak barraketan ibili ziren. TXINTXARRI



Sorgin Jaiak herriko presoak presente izan zituzten eta herritar ugari bildu zen mobilizazioan. TXINTXARRI





Ttakun Kuktur Elkarteak eta Aterpea Merkatari elkarteak antolatutako sagardo dastaketak eta sardin janak giro ederra jarrai zuen Okendo plazan. TXINTXARRI



Danele Sarriugarte eta Miren Narbaizaren eskutik, oraina eta ez existitzearen garrantzia *Popperra, afterra eta utopia* emanaldian. TXINTXARRI



Biyak Bat eta Hernaniko Goiz Eguzki abesbatzek kontzertu ederra eskaini zuten. TXINTXARRI


zerbitzu mistook

MAITE

ESTETIKA ARETOA

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Gora Lasarte-Oria!
Gora San Pedro Jaiak!



Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria



Ane Labaka eta Maialen Lujanbio kultur etxeko oholza gainean koplaka. TXINTXARRI



Elkartasun egunari jarraipena emateko, afaria egin zuten sorginek Askatasunaren parkean. TXINTXARRI



Herritarrek zezensuzkoaren txinpartengandik ihesi ibili ziren. TXINTXARRI



Amaia Agirre arduratu zen sei bertsolariei kanturako gaiak jartzeaz. TXINTXARRI



Bulego talde azkoitiarrarekin igaro zuten herritarrek ekainaren 29 gaua, Okendo plazan. TXINTXARRI



Ederki gozatu zuten lasarteoiatarrek Bulego taldearen emanaldiaz. TXINTXARRI



Zale ugari bildu zituen Bulego musika taldeak; Tomas Lizarazu da abeslari eta gitarra jotzailea. TXINTXARRI



Estrella Central musika taldea aritu zen Isla plazako oholtza gainean, gauean. TXINTXARRI



Askotariko doinu ezagunak eskaini zizkieten eurak ikustera joandako parrandazaleei. TXINTXARRI



Gazte ugari batu ziren DJ Nemux-en disko festan. TXINTXARRI



Jaizkibel plazan aritu zen Carlos Jean DJ ezaguna. TXINTXARRI



Ederki astindu zituzten gorputzak Star Ways taldea entzutera joandakoek. TXINTXARRI

txintxarri
Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia
jarrinahi duzu?
Jar zaitez
gurekin
harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK:
publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

SEMBLANTE ANDALUZ

*Jai zoriontsuak
igaro izana
espero dugu*

Golf plaza 2, Lasarte-Oria - Tel. 943-36 36 99



Ekainaren 30a

Euriak atsedeen eman zuen

Herriko txistulariek herria esnatu eta gaupaseroak etxera joan bitartean, hainbat jarduera izan ziren hirugarren egunean. Euririk ez zuen egin eta herritarrak kalera atera ziren. Goizean Extremadurako giroa izan zen Jaizkibel plazan eta rock doinuak eraman zituen Zero Sette Jai Bandak Okendora. Michelinen, aldiz, bola eta toka txapelketa jokatu zen. Parkeekin eta LOZETeko erraldoi eta buruhandiek aspertzeko betarik ez zuten izan haur eta gaztetxoek, eta arratsaldean ere jaien protagonista izaten jarraitu zuten; haur danborradan, lehenik, Jaizkibel plazako dantza lehiaketa eta minidiskoan, ondoren. Baina dantza ez denez adin kontua, horretara batu ziren bai Isla plazan bai Okendon bildutako ez hain gazteak ere. Sorgin gunean, berriz, kozinatzen moldatzen direla erakutsi zuten patata tortilla lehiaketako partaideek. Earra bertso eskolako bost lagunekin batera bertso poteoan ere ibili ziren, eta, ostean, txosna ingurua Palestinarekiko elkartasunaren erdigune bilakatu zen.

Aurreko bi egunetan baino jende gutxiago atera zen kalera gauean baina ederki pasa zuten. Alargun Beltzak taldeak jo zuen Okendo plazan, eta Ander Hazas lasarteoriatar gazteak nahiz DJ Txolasek, Oriarte Landaberrin Bestalde, ugari izan ziren zezensuzkoen aurrean korrika egin zutenak. Eta Oñatitik etorritako Lizartxo erromeria taldeak, urtero legez, giro bikaina jarri zuen sorginen gunean.



Brotos de La Encina taldeak eta Extremadurako migek Erkidegoko giroa eraman zuten Jaizkibel plazara. TXINTXARRI



Herriko txistulariek diana ederra egin zuten; parrandero eta guzti. TXINTXARRI



Erraldoi eta buruhandiek herritar ugari bildu zuten erdialdean. TXINTXARRI



Haur eta gazte parkeetan ere ederki gozatu zuten etxeko txiki eta gazteek. TXINTXARRI



Rock doinuez bete zuen Zero Sette Jai bandak Okendo plaza. TXINTXARRI



Goiz eta arratsalde, bola eta toka txapelketa jokatu zen Michelin kirol gunean. Ostadar SKTko kideek omenaldia egin zioten Inaxio Otaegiri bere ibilbidearengatik. TXINTXARRI



Haurren danborradako partaideak, atseden hartzen eta freskatzen. TXINTXARRI



Goiko irudian, Palestinari elkartasuna adierazten; behekoan, bertso poteoa hasten. TXINTXARRI



Gaztetxoek dantza lehiaketa egin zuten Jaizkibel plazan. TXINTXARRI



Ezker-eskuin: Uxue Ariztimuño, Olaia Soroa, Maddi Trantxe eta Uxue Odriozola. TXINTXARRI



Ezkerrean; Maruja Limon taldea; eskuinean, DJ Nikorekin dantzatu zuten bi herritar. TXINTXARRI

Barruan duzun artista ateratzeko garaia da

Zatoz eta parte hartu SANTA ANAKO PARODIAN

Paperen banaketa: Uztailaren 11n, 18:00etan Manuel Lekuona kultur etxean
Entseguak: Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara

943-37 14 48
kultura@ttakun.eus



Kontzertu ikusgarria eman zuen Alargun Beltzak taldeak. TXINTXARRI



Herritarrek primeran pasa zuten jaietako igande gauean ere. TXINTXARRI



Hazas eta Jagoba, estreinatu berri duten 'Zenbat gau' kantatzen, Oriarte Landaberriko gunean. TXINTXARRI



Goiko irudian, zezensuzkoa; behekoan, Lizartxoren erromeria. TXINTXARRI



Uztailaren 1a

Astelehen mugitua

Haurren pilota txapelketako finalak jokatu zituzten Loidibarren pilotalekuan, goizean. Intza Kirol Elkarteko Pilota saileko zuzendari Jose Felix Solano azkenekoz aritu da zeregin horretan eta horregatik omenaldi hungigarria jaso zuen neurketen ostean.

Toka Txapelketarekin hasi zuten arratsaldea sorginek, eta ostean, *Zor diogun memoria* emanaldi ederra erakutsi zuen Kukukak. Egitarauan azken unean iragarritako ekintza bat ere aurrera eraman zuen Sorgin Jaiak-ek, Lasarte-Oriako Transmaribibollo kolektiboarekin batera; elkarretaratze bat egin zuten, Okendo plazan, ekainaren 27 eta 30ean gertatutako erasoak gaitzetsi eta salatzen. Xuhakan elkartearen eskutik, txakurren erakustaldiaz gozatu zuten herritarrek, eta buruhandiekin gozatu zuten gazteek. Nagusiek, aldiz, bi hitzordu izan zituzten; *Por hacer un favor* antzezlan eta Nafarroako jotak. Bestalde, Stereo Rock taldearen kontzertua izan zen Jaizkibel plazan.

Euritan dantzan da Gatibu taldearen abesti ospetsuenetako bat eta gemikarrak aurten gurera etorri ez badira ere, herritarrek sarritan erabili dute esamolde hori jaietan. Adibidez, astelehen gauean, euria dezente egin baitzuen. Belakoren emanaldia aterpean hasi ziren jarraitzen herritarrek eta giroa baretu zenean hurbildu ziren musikariengana. Kale Nagusira zezensuzkoak atera zituzten eta Isla plazan nahiz Oriarte Landaberrin izan zuten zer entzun herritarrek: Stylo Music Show, batetik, eta Tropikal nahiz Blessive DJak, bestetik. Parrandarekin segitzeko bertsio ezagunak jo zituen Auskalok, Okendon.



Joxe Felix Solanok azkenekoz egin zituen epaile lanak haurren txapelketan. TXINTXARRI



Loidibarren lepo bete zuten zaleek pilotarien lana eskertu zuten txapelketan zehar. TXINTXARRI



Emozioz betetako neurketak jokatu zituzten harrobiko pilotariak. TXINTXARRI



Finalen ostean aitortza hungigarria jaso zuen Intza KEko Pilota sailaren zuzendariak. TXINTXARRI



Jokalari, antolatzaile eta udal ordezkariak talde argazkia atera zuten frontisean. TXINTXARRI



Toka Txapelketarekin ekin zioten sorginek arratsaldeari. TXINTXARRI



Txakurren erakustaldia egin zuten, Sasota ikastetxeko patioan, Xuhakan elkartearen eskutik. TXINTXARRI



'Zor diogun memoria' lan ederra erakutsi zuen Kukukak. TXINTXARRI



Nikola Iraola biolin jotzaileak eta Lierni Rekondo bertsolariak ere parte hartu zuten Kukukaren ikuskizunean. TXINTXARRI



'Por hacer un favor' antzezlana ikustera joan ziren herritarrak. TXINTXARRI



Erraldoi eta buruhandien konpartsa, Zumaburu auzoan barrena. TXINTXARRI



Elkarretaratzea deitu zuten Sorgin Jaiak-ek eta Transmaribollo kolektiboak, erasoak salatzen. TXINTXARRI



Nafarroako jotak ekarri zituen Lasarte-Oriara Voces Ribera taldeak. TXINTXARRI



DJ Anersote gaztea aritu zen Oriarte Landaberriko gazte esparruan. TXINTXARRI



Zale askoren ikusmina piztu zuen Nafarroako joten emankizunak. TXINTXARRI



Stereorock talde lasarteoriatarrek girotu zuen Jaizkibel plazako arratsa. TXINTXARRI

GIPUZKOA

Ekin.
Gipuzkoa oparagoa izateko.

Zaindu.
Pertsona guztiak eta horien ingurukoak zaintzen dituen.

Bizi.
Ondo eta duin bizi daitezen.

GIPUZKOA
Foru Aldundia



Belako taldeak doinu post punkez bete zuen Okeno plaza. TXINTXARRI



Beroketaren ostean, euria atertu arte itxaron behar izan zen zezen suzkoaz gozatzeko. TXINTXARRI



Auskalo taldeak talde ezagunen bertsioekin dantzan jarri zuen Okendo plaza. TXINTXARRI



Stylo Music Showek Isla plazan eskaini zuen emanaldia. TXINTXARRI



DJ Tropikal eta DJ Blessiven saioez gozatu zuten Oriarte Landaberriko patioara hurbildu ziren gazteek.



Uztailaren 2a

Jaietako azken traka

Bazkalostean, azken festa giroari eusteko, gazteak izan ziren protagonista nagusiak. Loidibarren frontoian haur parkeaz gozatu zuten etxeko txikienek, eta gazteek, berriz, Xake Txapelketa izan zuten Palomo Linares elkartearen. Hamabi parte hartzaile aritu ziren, sei bikote, eta bost minutuko partidak jokatu zituzten. Erraldoi eta buruhandiak ere irten ziren kalera jaietako azken kalejira egitera.

Jaizkibel plazan, berriz, *Katapuntxispun* antzerkia erakutsi zuten Kiki, Koko eta Moko pailazoen, eta afalurretik, Brigitarren komentutik abiatuta, mariatxi doinuek hartu zuten herria. San Pedro Jaietako azken traka irudikatu (edo soinuiztatu, hobe esanda) zuten Vulcano piroteknia etxeko lagunek, hamar bat minutuz etxafuegoak zerura jaurtita Andatza plazan. Enparantza hori lepo bete zuten herritarrek gustura jarraitu zuten ikuskizuna eta txalo egin zuten amaieran. Bukatu eta etxerantz zihoazela aurreko urteetakoa baino emanaldi politagoa izan zela aipatu zuten lasarteoriatar batzuek. Lotara sartu aurretik LOZET elkartearen azken zezensuzkoen aurrean korrika egin zuten dozenaka herritarrek, Kale Nagusian barrena. Haur nahiz heldu, asko izan dira jarduera tradizional horretaz gozatu dutenak festetan. Nahikoa musika emanaldi izan zituzten aurreneko egunetan baina baziren oraindik herritarrak gorputza mugitzeko gogoia zutenak. Horretarako aukera paregabea eman zien Galdakaotik (Bizkaia) etorritako Oxabi taldeak; pentsa, parrandaz parranda ibilitako gazteak ere berpiztu zituen bere erromeria freskoarekin! Azkenik, gaztetxoek DJ Markelin-en saiora joanda agurtu zuten zenbait egunez festa eremu bilakatutako Oriarte Landaberri institutua.



Jokoa hasi aurretik, elkarri eskua ematen diote xake jokalariek. TXINTXARRI



Bost minutuko partidak jokatu zituzte sei bikoteek. TXINTXARRI



Loidibarren pilotalekuan jarritako haur parkeaz gozatu ahal izan dute etxeko txikienek. TXINTXARRI



Atsobakarren ibili ziren erraldoi, buruhandi eta gaztetxoak azken arratsaldean. TXINTXARRI



'Katapuntxispun' obra ekarri zuten Kiki, Koko eta Moko pailazoen Jaizkibel plazara. TXINTXARRI



Brigitarren komentuko mojej hainbat abesti eskaini zizkieten mariatxiek. Abesteaz gain, dantza ere egin zuten Mariachi Imperial Elegancia Mexicana taldeko kideek. TXINTXARRI



DJ Markelinena izan da Oriarte Landaberriko gazte guneko azken emanaldia. TXINTXARRI



Herritar batek baino gehiagok dantzatzeko bukatu zituen San Pedro Jaiak. TXINTXARRI



Oxabi talde galdakoztarraren erromeriak txundituta utzi zituen ikus-entzuleak. TXINTXARRI



Oxabik berpiztu egin zituen lasarteoriarrak eta kontzertuak aurrera egin ahala gero eta gehiago



Herritarrak, azken zezensuzkoarengandik ihesean, Kale Nagusian. TXINTXARRI



Jende ugari animatu zen Andatza plazara joatera, suak ikustera. TXINTXARRI



izan ziren talde bizkaitarrek batera abestu eta dantzatu zutenak. TXINTXARRI



Vulcano etxearen etxfuegoak ikusgarriak izan ziren. TXINTXARRI



TXINTXARRI

1.000 euro eskuratzeko aukera

Eskuratu 1.000 euro kanpaina abiatu du Aterpea merkatarien elkarteak uztailean. Egitasmoarekin bat egin duten dendetan hilaren 14a baino lehen erosten duten bezeroek, 1.000 euroko erosketa txartel baten zozketan parte hartuko dute.

Irabazleak, hiru orduko denbora tartea izango du erosketa guztiak egiteko, eta kanpaina martxan jarri

duteneak ohartarazi dute ezingo dituela hamar bonu baino gehiago erabili establezimendu bakar batean. Horrez gain, herriko dendetan egin beharreko ibilbidea gauza dezan, Aterpeak auto "dotore" bat jarriko du bere eskura.

Ekimenaren helburua da herriko komertzioetan erosteko ohitura sustatu eta establezimendu horiek indartzea.



TXINTXARRI

Herriko taldeak, Donosti Cupen

Donosti Cup futbol txapelketa martxan da. Michelin kirol gunean zein Gipuzkoako, Iparraldeko zein Nafarroako ia ehun zelaietan ari dira lehiari nazioarteko taldeak. Lasarte-Oriak ere badu ordezkaria; guztira, Texas Lasartearra CF eta Ostadar SKTko bederatzita talde ari dira borrokan. Asteburuan Europa League eta Champions League faseak jokatu dira.

Igandeetako jardunaldiak itzuliko dira Hipodromora

Zaldi Lasterketen I. Pronostiko lehiaketa ere jarri da martxan; hilaren 6ra arte izena eman daiteke

Txintxarri

Hilabeteko etenaren ostean, udako denboraldiarekin jarraituko du Donostiako Hipodromoak. Hilaren 7an, igandearrekin, Nagore Otaño oroimenezkoa, Belle Epoque, Viura hotela, Hipotour eta Ayerdi bitxitegia sariak jokatuko dira.

Horrez gain, Zaldi Lasterketen Zaletuen I. Pronostiko Lehiaketa martxa jarri du zaletu talde batek. Hilaren 6ra arte Genesis-Ainhoa tabernan izena eman ahal da jokatzeko. Inskripzio bakoitzak 20 euro balio ditu.



Lehen jardunaldiko lehia. D. ARGINDAR

Izena ematetik biltzen den diru guztia sarietarako izango da. Lehiaketako arau eta baldintza guztiak www.zaldilasterketak.eus webgunean daude eta bertatik lehiaketako jarraipen guztia ere egin ahal da.



EUSKOTREN LIGA / A. ARRIZABALAGA

Arraun Lagunak, Galizian nagusi

Arraun ligak hasi dira Galizian. A Coruña eta Bueen lehiatu diren bi jardunaldietan Aiora Belartietak eta Nahia Goenaga herriararrak kide dituen Donostia Arraun Lagunak izan da garaile garbia Euskotren Ligan eta sailkapeneko buru da hamasei punturekin. Intza

Fernandezen Hondarribia Bertako Igogailuak-ek, aldiz, bosgarren eta seigarren postuak eskuratu ditu. Hori dela-eta, zazpi puntu eskuratu ditu eta sailkapen nagusian bosgarren da. Hilaren 6an eta 7an, Donostian eta Zierbenan (Bizkaia) lehiatuko dituzte Ligako hitzorduak.

Espainiako laugarren

Espainiako atletismo txapelketa lehiatu zen ekainaren 28tik 30era, La Nucia, Alacanten. Lasarte-Oriak ordezkari bat izan zuen bertan, Ostadar SKTko Naroa Furundarena. Atletik gaztea Estatuko jautzilaria onenen aurka lehiatu zen bi probatan: jauzi hirukoitza eta luzera jauzia. Jauzi hirukoitzean podiumera igotzetik gertu geratu zen herritarra; laugarren amaitu zuen txapelketa.



RFEA

Saleta, Valladolidera

Alex Saleta errugbi jokalaria Espainiako selekzioarekin Ozeanian den bitartean, VRAC Entrepinares taldeak bere fitxaketa jakinarazi du. Ordizian urtebete egin ostean, herriko hirugarren lerrokoak hamahiru aldiz Ohorezko Mailako irabazle izan den eta titulua duen Valladolideko taldearekin bat egingo du 2024-2025 denboraldian.



VRAC ENTREPINARES



KOMIKIA

FEDE


ZERRI BATEN BILA



ZORION AGURRAK



Oier
Zorionak Oier!!!
Oporrekin batera
zure eguna ere iritxi
zaigu! Gozatu!!!
Asko matte zattu!!!
Uda on bombon!!



Iñigo
Zorionak National
Txintxarrigraphiceko
argazkilaritari!!!
Jaietan aurrez
ospatu duzun arren,
ederki igaro
dezazula zure
eguna! Gu
hamaietakoaz
gozatzera gatoz...
Orain San Inazio
arte...bakarrik te!

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri,
jaioberri edo urteurrena bete duten
lagunak eta senitatekoak

Internet

- txintxarri.eus/
zorionagurra.
- Erabiltzailearekin
sartu/ Erabiltzaileak
ez baduzu izena
eman.
- Zehaztutako datan
argitaratuko da
webgunean eta
ostiralean
paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali
txintxarri@ttakun.
eus helbidera, eta
idatzi: izen-
abizenak,
urtebetetze eguna,
urteurrenaren data
edo ezkontzaren
data eta nahi duzun
testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO
FARMAZIAK

OSTIRALA, 5	DE MIGUEL
LARUNBATA, 6	DE ORUE
IGANDEA, 7	DE ORUE
ASTELEHENA, 8	LASA
ASTEARTEA, 9	GIL
ASTEAZKENA, 10	ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 11	URBISTONDO

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer
plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
webgunean eskuragarri.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali
haurren izen-abizenak eta jaiotze
data txintxarri@ttakun.eus helbide
elektronikora edo 688 68 35 10
WhatsApp zenbakira.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA:
943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK:
943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Kirol instalazioetan udako ordutegia

Udal kirol instalazioek udako ordutegia dute martxan abuztuaren 31era arte. Honakoak dira irekiera eta itxiera orduak:

- Astelehenetik ostiralera: kiroldegia, 7:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 22:00etara; igerilekua, 7:00etatik 12:30era eta 16:00etatik 21:30era eta Michelin Kirol Gunea, 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 22:00etara.
- Larunbatetan: kiroldegia eta igerilekua, 9:00etatik 14:00etara eta Michelin Kirol Gunea, 9:00etatik 13:00etara.
- Igande eta jai egunetan: kiroldegia eta igerilekua, 9:00etatik 14:00etara eta Michelin Kirol Gunea, itxita.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plaza dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

17 urteko neska euskaldun bat naiz, Batxilergoa egiten ari dena Zientzia alorretik. Udan zehar haurrak zaindu eta eskolak emateko prest nago.

Harremanetarako, 678 17 15 99.

21 urte ditut eta udaran haurrak zaintzeko lan bila nabil. Interesa izanez gero harremanetan jarri zaitezke, 634 41 95 78.

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldetan, garbiketa lanak, pertsona adinuen zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da aste-buruetan lan egiteko. Esperientzia eta informea. Harremanetarako, 687 35 50 95.

netarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Iragarkia jarri nahi
baduzu jar zaitez
gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizaguirre, Iñigo
Gonzalez, Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux
Artetxe, Maitane Rebe, Julen
Basterra, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban
Urdalleta, Egoitz Epelde,
Nora Navarro, Sergio
Hernandez eta Ander Hazas.
**Zintiloaren irudiaren
egilea:**
Argote Martin

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus



Uztaileko kultur agenda aurkeztu dute berriki udal ordezkariak. Udaleko Kultura zinegotzi Ainara Elicecheak jakinarazi du kalera aterako dituztela hilabete honetako antzerki, dantza eta zinema emanaldiak. Bestalde, hilaren 26a Santa Ana eguna izango denez, urteroko parodia eta artisau azoka ez dira faltako.

OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan, Pantha Rei taldeak Izarren hartza lanaren emanaldia egingo du. **Askatasunaren parkea, 19:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutua.**

OSTEGUNA 11

LASARTE-ORIA Dantza

Kale Kultura zikloaren barruan, Alurr dantza taldeak *Laia* ikuskizunaren emanaldia egingo du. **Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutua.**

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan, Ganso&Cia konpainiak Welkome&Sorry antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrera

doakoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutua.

OSTEGUNA 18

LASARTE-ORIA Zinema kalean

Okendo Zinema Taldeak *Indiana Jones, el dial del destino* filma emango du, doan.

Okendo plaza, 22:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutua.

OSTIRALA 19

LASARTE-ORIA Antzerkia

Kale Antzerkia Bultzatuz zikloaren barruan, Barsanti Teatroak *Lanean jarraitu 75 urterarte!* antzezlanaren emanaldia egingo du, doan. **Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte Landaberri institutua.**

IGANDEA 21

LASARTE-ORIA Azoka

Santa Ana egunaren aurrekari gisa, 39. Artisau Azoka aurrera eramango dute Okendo plazan. **Okendo plaza, 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.**

ZINEMA



LABURPENA

'Indiana Jones y el dial del destino'

Zuzendaria: James Mangold. **Gidoia:** James Mangold. **Argazkia:** Phedon Papamichael. **Ekoizleak:** Lucasfilm, Amblin Entertainment, Paramount Pictures. **Herrialdea:** AEBak (2023). **Iraupena:** 154 minutu. **Generoa:** Abentura. **Aktoreak:** Harrison Ford, Mads Mikkelsen, Phoebe Waller-Bridge, Antonio Banderas, Karen Allen, Boyd Holbrook.

Jones-en enegarren abentura

Indiana Jones arkeologoa (Harrison Ford) denboraren joanaren aurka lehiatuko da berriz ere kondairazko dial bat berreskuratzeko abenturan. Tramankulu horrek historia bera alda dezake eta horregatik da hain baliotsua. Bideari ekin bezain pronto, orde, arerio ugariaren aurka borrokatuko da, besteak beste, Jurgen Voller-en aurka (Mads Mikkelsen), NASA

agentziarentzat lanean ari den nazi baten kontra.

Indiana Jones y el dial del destino izango da Okendo Zinema Taldeak aurtengo ikasturtean proiektatuko duen azken filma. Azken urteetan bezala, uztaileen kalera atera ohi ditu zinema emanaldiak, herritarrek aire zabalean goza dezaten horietaz. Hilabeteko lehenengoa atzokoa izan zen, hilak 4: *Pride* izeneko lana eman zuten.

ESKUTITZA

Indarkeria matxistaren aurkako protokolo honi ez!

BERDINTASUN KONTSEILUKO ERAGILE ETA MUGIMENDU FEMINISTAKO ORDEZKARIK

Badira bi urte Lasarte-Orian berdintasun kontseilua osatu zenetik. Udalaren partetik, arduradun politikoa eta berdintasun teknikaria, eta beste aldetik mugimendu feministako zenbait kide eta talde eragile batzuen ordezkariak biltzen eta lanean aritu gara gure herria feministagoa eta berdinzaleagoa izan dadin.

Besteak beste, bi urte hauetan festetako protokolo on bat sortzea

izan da gure helburu nagusietako bat. Lazkoa onartu genuenean argi genuen alde guztiak oinarritzko eta minimoetako adostasuna zela eta aurtan hori sakontzen eta hobetzen segitzeko lanean aritu behar genuela. Eta horretan aritu gara Udalarekin adosten puntuz-puntu, aurtan ezarri behar zen protokolo berria. Besteak beste honako neurriak barnebiltzen zituen: Mantangorri zerbitzua festa egunetan gauaz marxan jartzea,

erasotuak izan diren horien arta herrian bertan arreta eskaini dezaketen profesionalen esku egotea, musika taldeei eskatzea protokoloaren oinarri berdinzaleekin bat egiteko, emakumeak oholtzan egoteko politikak aurrera eramatea eta abar. Ez ginen ari aparteko ezer eskatzen. Inguruko herri eta hirietara begira egindako proposamenak ziren: ziur ikusi dituzuela beste herri batzuetan kioskoak sexu erasoaren aurkako prebentzio eta arreta lana egiteko, edota gaueko autobusak ezagutzen dituzue. Lasarte-Oriako emakumeok festaz gozatzeko aukerak zabaltzea zen asmoa, besterik ez.

Bazirudien gure lanak fruituak eman zituela. Adostuta, idazteke eta sinatzeke zegoen protokoloa, baina, tamalez, udaleko bi ordezkariak baja hartu behar izan dute ia aldi berean. Festak gerturatzeko zihoazelarik eta inongo informaziorik ez genuenez, udalarekin jarri ginen harremanetan, protokoloarekin zer gertatu zen jakiteko. Bajan dauden horiek ordezkatzeko ari diren karguekin bildu ginen joan den ostiralean (iada festak gainean ditugula) eta gure sorpresarako, adostutakoak kontutan hartu ez dituztela eta 2023ko prokoloa baino okerragoa den bat sinatzera gonbidatu gaituzte. Ez dago ez arta

espezializaturik, ez eta beste eragile batzuekin akordioarik ere.

Gure erantzuna ezezkia borobila da. Eta publiko egin nahi dugu ez dugula aurtin jarraituko den protokoloarekin zerikusirik. Era berean udalaren jarrera salatu nahi dugu, gure lana eta gure esfortzua gutxietsi dutelakoan. Benetan espero dugu, egin dugun lan eskergatik aurtengoa salbuespena izatea eta guztiotzako gozagarriak diren jaietan sakontzeko asmoarekin eustea. Bestela, herritarren erdiarentzat ez dira festa justuak izango.

Errespetuz jokatu diote, haiek. Guk nahiago dugu esan Lasarte-Oriako gauak, festak, plaza... gureak direla.



txintxarri

Inozko bisita kopuru onena izan du TXINTXARRI.EUS-EK ekainean! Eta hori, zuei esker da, irakurleok! Mila-mila esker gurekiko duzuen konfidantzagatik!

Jarrai dezagun bidea elkarrekin egiten!
www.txintxarri.eus

GESTORÍA / FINCAS / INMOBILIARIA






Betelū

BERME TALDEA



emekin

Gipuzkoako Foru
Aldundiak emakume
ekintzaileei eskaintzen
dien aholkularitza zerbitzu
ofiziala gara.

-  **Gestoria**
-  **Aholkularitza**
-  **Inmobiliaria zerbitzuak**
-  **Aseguruak**
-  **Etxebizitzen administrazioa**

Betelū BERME TALDEA
Aralar plaza, 6 behea
20160 Lasarte-Oria
943-36 48 86 | 666 40 91 94
betelu@berme.eus

ESKERRIK ASKO

GUREKIN JAIEZ GOZATZEAGATIK!

BLUSA ERANTZI
ETA DATOZEN
SANPEDROAK ARTE!

**EUSKARA ETA KULTURA
BIDELAGUN!**



Ttakunek antolatutako egitasmoetan aritu zaretenoi
eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, batez ere
bolondres bezala ibili zaretenoi. Bejondeizuela!

GORA LASARTE-ORIA!